eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

ERABAKIA, 2021EKO UZTAILAREN 30EKOA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREARENA, UNIBERTSITATEKO DOKTORE IKERTZAILE IRAUNKORRAREN PLAZA BETETZEKO LEHIAKETAN ONARTUTAKO ETA KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ARGITARATZEKO DENA.

Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2021eko ekainaren 15eko Erabakiaren bidez deia egin ondoren unibertsitateko doktore ikertzaile iraunkorraren plaza betetzeko (2021eko uztailaren 2ko EHAA), eta amaituta eskariak aurkezteko epea, errektoreak ondokoa erabaki du:

*Lehena*.- Onestea lehiakide onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrenda erabaki honen eranskinean jasotako moduan eta argitara ematea. Zerrenda Leioako Errektoregoko Deialdi eta Lehiaketen Ataleko iragarki oholean eta campusetako errektoreordetzetakoetan ikus daiteke, bai eta unibertsitatearen web orrian ere (https://www.ehu.eus/, Irakasleak-Deialdi bideratuak).

*Bigarrena*.- Lehiakide kanporatuek hamar egun balioduneko epe luzaezina izango dute kanporatzea eragin duen akatsa zuzentzeko, zerrenda Unibertsitateko web orrian argitaratu eta biharamunetik aurrera hasita. Lehiakide onartuen zerrendan zein lehiakide kanporatuen zerrendan agertzen ez direnek ere epe berbera izango dute, zerrenda horietako batean ere ez agertzea eragin duen akatsa zuzentzeko.

Aipatutako epearen barruan akatsa zuzentzen ez duten lehiakide kanporatuek eskubide guztiak galduko dituzte, eta halaxe egingo dute, era berean, zerrendetako batean ere azaldu ez direnek, baldin eta epe horretan frogatzen ez badute onartuen zerrendan agertzeko eskubidea dutela.

Hala adierazten da, guztiek jakin dezaten.

Leioa, 2021eko uztailaren 30a.

Errektorea
Eskumenak eskuordetuta (Erabakia, 2021eko urtarrilaren 28koa, errektorearena, otsailaren 12ko EHAA).

Firmado por 30628936C FEDERICO RECART (R: Q4818001B) el día, 30/07/2021 con un certificado emitido por Herritar eta Erakundeen CA - CA de

Izpta.: Federico Recart Barañano
Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea

Dokumentu hau hitzez hitz dator bat jatorrizkoarekin.
Este documento concuerda literalmente con el original
Leioan, 2021 eko VIII aren 2 an
Leioa, 2 de VIII de 2021
Funtzionarioa - El/la funcionario/a

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
REGISTRO DE RESOLUCIONES
ERABAKIEN ERREGISTROA
Resol. nº 2877/2021 Erabaki zk.

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

**ERANSKINA. LEHIAKETARA ATERATAKO PLAZAREN DATUAK:**

**Lanpostuaren zk.: 1. Kodea: IDPTCL1 – D00042-6.** Kategoria: Doktore ikertzailea. Jakintza arloa: Biokimika eta Biologia Molekularra. Saila: Biokimika eta Biologia Molekularra Ikastegia: Zientzia eta Teknologia Fakultatea. Hizkuntza eskakizuna: Ez-elebiduna. Arduraldia: Osoa. Ikertzaile profila: "Biofisika".

ONARTUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA:

Izena eta deiturak: ANNA SHNYROVA ZHADAN
NAN: ***0641**

KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA: Bat ere ez

IDAZKARITZA NAGUSIA SECRETARÍA GENERAL
UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA